

Euskal AEko Goi-teknologia sektoreak lanpostuen %8,9 sortu zituen 2013an

Sektore honetan daude I+G egiten duten enpresen %40,6 eta langile okupatuak %67,7

Goi eta goi-ertain sektorean oinarri teknologiko sendodun eta ezagutza-berrikuntza azkardun jarduerak ditugu; Euskal AEn 2013an 86.571 langile ari ziren, guztien %8,9, Eustaten datuen arabera. Sektorean 4.718 enpresa ari ziren, %1,5eko gehikuntza aurreko urtearen aldean. 2012.aren aldean langile okupatuak %1,3 gutxiago ziren (euskal ekonomia osoan %-2,4).

Sektore honen negozio-zifra, 17.183,5 milioi, aurreko urtean baino %4,3 gutxiago; sortutako aberastasuna, balio erantsiaren terminoetan, 5.806,4 milioi, 2012an baino %5,4 gutxiago.

1. taula: Goi-teknologia sektorearen magnitude nagusiak, lurralde eta jarduera sektoreen arabera, 2013

	Enpresa kopurua	Landun kopurua	Negozio kopurua (1)	Balio erantsia (1)
Goi-teknologiaren sektorea	4.718	86.571	17.183,5	5.806,4
Lurralde Historikoa				
Araba/Álava	673	14.461	4.163,3	976,2
Bizkaia	2.465	35.562	6.224,0	2.497,2
Gipuzkoa	1.722	36.548	6.796,2	2.333,0
Jarduera-adarra				
Goi-industria eta Goi-ertain teknologia	1.694	60.451	14.226,7	3.962,5
Goi-teknologia	161	8.948	1.901,0	570,3
Goi-ertain teknologia	1.533	51.503	12.325,7	3.392,2
Goi-teknologia edo puntako zerbitzuak	3.024	26.120	2.956,8	1.843,9

(1) Milioika eurotan

Iturria: Eustat. Goi-teknologiako adierazleen panela


I+G egin eta berritzaileak diren enpresen portzentajea handiagoa da goi teknologian beste sektoreetan baino

Enpresen %14,1ek I+G egiten du; sektoreen guztirakoan, %1,0k; handia da aldea. Gainera, sektoreak –enpresa guztien %3,0- I+G egiten dutenen %40,6 biltzen ditu, eta enpresa-sektorearen I+G barne-gastuaren %68,9 -683,7 milioi- egikaritzen ditu.

Sektorean 2013an 8.924 langile aritu ziren I+Gn, dedikazio osoko baliokidetzan (enpresa sektore guztien %67,7); haien arteko 2.752, emakumeak. Gehiago zehaztuz enpleguan, dedikazio osoko baliokidetzan 5.353 ikertzaile aritu ziren; haien arteko 1.670, emakumeak.

Berrikuntzan, I+Gn bezala, alde esanguratsuak daude sektoreen guztirakoaren eta goi teknologiararen artean. 2013an, goi teknologiarako establezimenduen %30,1 berritzaileak izan ziren; sektoreen guztirakoan %12,7. Enpresaren tamaina kontuan, 10 langile eta gehiagokoetan, lehen kasuan %56,0, sektoreen guztirakoan %28,4.

1 grafikoa: I+G+b Goi-teknologiarako enpresetan, eta sektore guztietan. 2013 (%)



Iturria: Eustat. Goi teknologiarako adierazleen panela

Berrikuntzan goi teknologiarako establezimenduek 1.264,2 milioi gastatu zituzten, enpresa guztien gastuaren %49,3. Gastu horretatik, 1.159,5 milioi 10 langile eta gehiagoko establezimenduek eginak, tamaina horretako enpresen gastu guztia %52,8.

Begiratzen badugu zer den berrikuntzako eta I+G+b gastua negozio zifraren gainean (barne berrikuntzako eta barne I+G intentsitate-ratioak), begi bistakoa da, baita ere, goi teknologiararen sektorean baliabide gehiago joan zirela I+G+b-ra gainerako sektoreetan baino. Berrikuntzaren intentsitatea 6,61 da sektorean eta 1,65 guztirakoan. Barne I+Gn ratioa 4,04 da goi teknologian eta guztirakoan 0,85.

Bai IKT teknologiak, bai merkataritza elektronikoa zabalduago daude goi teknologiararen sektorean sektoreen guztirakoan baino

IKT teknologien erabilera oso zabalduta dago sektore honetako enpresen artean, baina merkataritza elektronikoen erabilerak, gainerako sektoreetakoaren gainetik badago ere, ezarpen handirik gabe dirau, batez ere salmenten aldetik. Erosketak egindako goi teknologiarako establezimenduak %39,2 eta salmentak %7,9 izan ziren; sektoreen guztirakoan %19,7 eta %5,2.

2. taula: Goi-teknologia sektoreko berrikuntzako eta barne I+G intentsitatea, lurralde-arlo, jarduera sektore eta enplegu-geruzen arabera (%). 2013


	Guztira		10 langile eta gehiago	
	Berrikuntza intentsitatea	Barruko I+Garen garrantzia (2)	Berrikuntza intentsitatea (1)	Barruko I+Garen garrantzia (2)
Sektore guztira	1,65	0,85	2,18	1,22
Goi-teknologiaren sektorea	6,61	4,04	6,53	3,96
Lurralde Historikoa				
Araba/Álava	6,20	1,89	6,13	1,86
Bizkaia	6,41	4,25	6,67	4,43
Gipuzkoa	7,09	5,18	6,64	4,86
Jarduera-adarra				
Goi-industria eta Goi-ertain teknologia	4,46	2,19	4,49	2,21
Goi-teknologia	5,21	3,56	5,07	3,42
Goi-ertain teknologia	4,33	1,95	4,39	1,99
Goi-teknologia edo puntako zerbitzuak	13,94	10,34	14,60	10,95

(1) Berrikuntzaren garrantzia: (berrikuntzako gastuak/negozioen kopurua)*100

(2) Barruko I+Garen garrantzia: (barruko I+G gastuak/negozioen kopurua)*100

Iturria: Eustat. Goi-teknologiako adierazleen panela

2. grafikoa: IKTn erabilpena 2013an (%)




Iturria: Eustat. Goi teknologiako adierazleen panela

Goi teknologia sektoreak ondasunen kanpo merkataritzan duen eragina ez da oso esanguratsua. Esportazioak 831,2 milioi (guztien %4,0) izan ziren, guztirakoa 20.631,9; inportazioak 514,4 milioi (%3,2) guztirakoa 15.961,6.

Esportazioetan nabarmentzen dira: Makineria eta ekipo mekanikoa (%54,9), Eraikuntza aeronautiko eta espaziala (%13,2), Material elektronikoa eta ekipoak (%10,2). Inportazioetan: Material elektronikoa eta ekipoak (%27,7), Eraikuntza aeronautiko eta espaziala (%23,0), Lanabes zientifikoak (%15,2), Makineria eta ekipo mekanikoa (%13,3).

3 grafikoa: Euskal AEko eta Espainiako 10 enplegatu eta gehiagoko enpresen alderaketa (%). 2013



Iturria: EUSTAT eta EIN

Azkenik, 10 enplegatu eta gehiagoko enpresen goi teknologiako sektorearen Euskal AEko eta estatuaren osotasunean, bada alderik adierazleetan. Euskadin enpresa berritzaileen portzentajea, berrikuntza intentsitatea, I+Gn ari den langile portzentajea eta I+G gastuaren proportzioa handiagoak dira estatuaren osotasunean baino; IKT teknologien erabileran, portzentajeak oso antzekoak dira.

Ohar metodologikoa:

Goi-teknologiako sektoreak: haien konplexutasunagatik, ikerkuntza-ahalegin etengabea eta oinarri teknologiko sendoa behar dituztenak dira. [Web Eustat. Metodologia fitxa: goi teknologia-adierazleen panela](#) estekan daude sektoreko jarduerak, 2009 EJSN-ren arabera.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62